



PASAIKO
ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA
ADINBERRI
ERREFERENTZIAZKO ZENTRO BERRIA
DEFINITZEKO

HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

2020KO EKAINA



EDUKIA

1. “ADINBERRI” AASen ALDAKETAREN PARTE-HARTZEA	3
1.1 SARRERA ETA IKUSPEGI OROKORRA	3
1.2 LEGE-ESPARRUA	4
1.3 PARTAIDETZAREN MUGAK	6
2. HELBURU, ESTRATEGIA ETA PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK	7
2.1 HELBURUAK	7
2.2 PARTE HARTZEKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK.....	8
3. PARTE HARTZEKO GIDA. AURREIKUSITAKO EKINTZAK.....	9
3.1 JARRAIBIDEEN ETA EDUKIEN LABURPENA	9
3.2 PARTE HARTZEKO EKINTZEN DESKRIBAPENA	11
3.3 KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIO-MATERIALA	13
3.4 PARTAIDETZAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	15
4. GENERO-IKUSPEGIA PARTE-HARTZEAN	16
4.1 GENERO-IKUSPEGIA BARNERATZEKO EDUKIAK	16
4.2 LAN-BIZITZA, PERTSONALA ETA FAMILIAKOA BATERATZEKO NEURRIAK	17

1. “ADINBERRI” AASSen ALDAKETAREN PARTE-HARTZEA

1.1 SARRERA ETA IKUSPEGI OROKORRA

1.1.1 Sarrera

Parte hartzeko prozesu hau PASAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN “ADINBERRI” ERREFERENTZIAZKO ZENTRO BERRIA DEFINITZEKO ALDAKETA PUNTUALAN kokatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez formulatua. Helburua da hirigintzaren aldetik adinekoentzako erreferentziako arreta-zentro bat eta osasun- eta laguntza-ekipamendu berri bat ezartzea ahalbidetzea.

Pasaiako Arau Subsidiarioak aldatzeko egindako dokumentuaren sustatzailea Gipuzkoako Foru Aldundia da eta "Adinberri" zentroaren sustatzailea ere bada. Aldiz, AASSen aldaketa izapidetzea Pasaiako Udalari dagokio.

Hirigintza dokumentua Ah Asociados, Miguel Ángel Alonso del Val, Rufino Hernández Minguillón, Marcos Escartín Miguel eta Mikel Zabalza Zamarbide arkitektura estudioek egin dute.

1.1.2 Ikuspegi orokorra

Herritarrek parte hartzearen helburua herritarrak erabakitze-prozesuen parte izatea da; kasu honetan, PASAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA, “ADINBERRI” ERREFERENTZIAZKO ZENTRO BERRIA DEFINITZEKO.

Azken hamarkadetan, herritarren parte-hartzea toki-administrazioaren eta gizartearen hiri-mailako askotariko arazoak konpontzeko funtsezko estrategia izan da, baita aurrerapauso garrantzitsu bat ere udalerrri barneratzaileagoak lortzeko. (ONU-Habitat, Hiri Gobernagarritasun Onaren Mundu Mailako Kanpaina).

Pasaiako AASSen “Adinberri” aldaketa puntualaren parte-hartzea hainbat jardueratan oinarrituko da, eta horien bitartez, eztabaida publiko eta sozialak sortuko dira tokiko kudeaketako gai zehatz baten inguruan: hiri-antolamendua. Horrela, Pasaiako etorkizuneko plangintzari buruzko hausnarketarako topaguneak sortuko dira eta herritarren ekarpenek AASSen aldaketaren eduki teknikoak aberastuko dituzte, emakumezko zein gizonezkoen ikuspegia kontuan hartuz.

1.2 LEGE-ESPARRUA

Euskadin, lege-esparrua **Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak** ezartzen du, honako bi artikuluetan: **8. Artikulua.**– *Herritarren parte-hartzearen printzipioa;* eta **108. artikulua.**– *Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.*

8. artikulua.– *Herritarren parte-hartzearen printzipioa.*

1. *Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzera, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.*
2. *Parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartza berarekin:*
 - a. *Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiaztatu beharrik gabe.*
 - b. *Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.*
 - c. *Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.*

108. artikulua.– *Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa..*

Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a. *Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitze erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko*
- b. *Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.*
- c. *Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.*

Horrez gain, **46/2020 DEKRETU**ak, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta **hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena**, hurrengo ezartzen du, 3.artikulan:

3. artikulua.– Herritarren parte-hartzea lurralde- eta hirigintza-plangintza izapidetzean.

1. *Lurralde- edo hirigintza-antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat egin beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea izan dezaten.*
2. *Herritarrek parte hartzeko delako programa oso-osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian; administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez:*
 - a. *Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.*
 - b. *Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.*
 - c. *Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.*
3. *Halaber, zazpi mila biztanletik gorako udalerriek, udal-plangintzaren aholku-batzordearen erregelamendurik ez badute, erregelamendu hori prestatu eta onartuko dute, plan orokorra formulatzen hasteko udal-erabakia hartu aurretik edo harekin batera. Batzorde horrek plangintza orokorrari buruzko txostena egin beharko du gutxienez.*

Pasaiako AASen “Adinberri” aldaketara puntualaren Herritarrek Parte hartzeko Programa honek EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta 46/2020 Dekretua betetzen dituen partaidetza proposatzen eta ahalbidetzen du, oreka onargarri baten bila.

1.3 PARTAIDETZAREN MUGAK

Herritarren parte-hartzeak Pasaiako AASen “Adinberri” aldaketarako ekarpenak bilduko baditu ere, **ekarpen horiek ez direla lotesleak eta ezin direla izan** esan beharra dago. Hori horrela da, alde batetik, eskumena Udalarena delako, eta, bestetik, AASen aldaketak berak hainbat muga dituelako. AASen “Adinberri” aldaketa udal-tresna juridiko bat izan arren, udalaz gaindiko administrazioetatik datozen hainbat baldintza aintzat hartu behar ditu; Estatuko, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko legeria eta araudia jaso behar ditu.

2. HELBURU, ESTRATEGIA ETA PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

2.1 HELBURUAK

Herritarrek parte hartzea eta informazio publikoa ematea, gardentasuna eta parte-hartze publikoa eta pribatua sustatuz, plangintza-prozesuaren gaineko informazio erabatekoa eta fidagarria epe egokietan emango dela ziurtatuz.

2. artikulua.– Printzipio orokorrak, c) puntuan, 46/2020 Dekretua

Pasaiako AASen aldaketaren erredakzio-prozesuan herritarren partaidetzak hiru helburu nagusi ditu:

1. **Pasaitarrei eta, batez ere Trinxerpekoen informatu eta trebatzea** AASen aldaketaren prozesuan zehar dibulgazio-materialaren bidez; bai informatuta egon nahi dutenei, bai parte hartu eta ekarpenak egin nahi dituztenei. Herritarren parte-hartzea informazio-oinarri on batetik abiatu dadin, ekintzek eta materialek edukiak erraz ulertzen direla bermatu beharko dute.
2. **Benetako parte-hartze bat aurrera eramatea, eraginkorra dena eta ahal bezain pertsona-kopuru handi eta anitzena kontuan hartuko duena.** Parte-hartzaileen artean besteak beste gizarte-eragileak, elkartekideak eta elkarteetakoak ez diren herritarrak, adin guztietakoak (bereziki, adinekoak) hartuko dira kontuan, **kanal anitzen** bitartez (aurrez aurrekoak eta digitalak). AASen aldaketaren edukia hainbat faseetan hausnartzea, eztabaidatzea, egiaztatzea eta argitzea ahalbidetuko duten kanalak erabiliko dira, eztabaida publiko eta sozial bat sortuko dutenak tokiko kudeaketari buruzko gai zehatz baten inguruan, hala nola, hiri-antolamenduaren inguruan.
3. **Planaren proposamenei ekarpenak egitea, adostasun kolektibo handiago bat lortuz.** Ikuspuntu tekniko-politiko herritarrenarekin osatu nahi da, esperientzialagoa baita, gizarte-talde, adin eta esperientzia anitzasunean oinarritutako ikuspuntuak aintzat hartuz eta eduki tekniko aberastuz.

2.2 PARTE HARTZEKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

2.2.1 Parte hartzeko estrategiak eta mekanismoak

Planteatutako helburuak lortzeko asmoz, **partaidetza-estrategia** definitzen da **Herritarrek Parte hartzeko Programa** honen bidez, Pasaiako Udalak egiaztatu eta baliozkotzat eman ondoren.

Estrategiak aukera ematen du ikuspuntu teknikoa eta herritarra ondo artikulatzeko. Horretarako, eduki eta materialak prestatu ondoren, herritarrei eta parte hartuko duten eragileei informazioa eskainiko zaie. Jarraian, parte hartzeko prozesuaren berezko ekintzak abian jarriko dira (aurrez aurrekoak zein digitalak). Eta azkenik, ekarpenen laburpena eta ebaluazio bat egingo da.

Informazio-estrategia dibulgazio-materialean, digitalean eta analogikoan oinarritzen da.

Estrategia parte-hartzailea parte hartzeko mekanismoetan oinarritzen da, hala nola informazio- eta partaidetza-saio publiko eta teknikoetan, kontsultan (digitala eta/edo paperean) eta erakusketa batean.

2.2.2 Komunikazioa partaidetza-prozesuan barneratuta

Komunikazioa funtsezkoa da parte-hartzea bermatzeko eta parte hartzen duten pertsonen informazioa ezagutzeko. Horregatik, Herritarrek Parte hartzeko Programa honetan **helburuak eta dibulgazio-materiala** deskribatzen dira, ekimena **gizarteratzeko eta zabaltzeko**, parte hartzeko une guztietan bereziki.

2.2.3 Parte hartzera gonbidatuko diren eragileak

Herritarrei buruz orokorrean hitz egiteaz gain, garrantzitsua da parte hartzeko oinarritzko eragile-taldeak bereiztea, komunikazio- eta partaidetza-estrategia bat diseinatu ahal izateko eta, halaber, jarraipena egin ahal izateko, edukiak eta materialak indartuz eta aldatuz, parte-hartze plurala, askotarikoa, inklusiboa eta parekidea lortzeko, baita pertsona-kopuru eta -aniztasun handiena ere.

Planteatzen diren eragile-talde handiak hurrengoak dira.

Parte hartzeko eragile-taldeak

1. Adinekoak
2. Adinekoak zaintzen dituztenak
3. Pasaiako herritarrak oro har
4. Osasun eta asistentzia kudeaketako teknikariak

3. PARTE HARTZEKO GIDA. AURREIKUSITAKO EKINTZAK

3.1 JARRAIBIDEEN ETA EDUKIEN LABURPENA

Aurreikusitako jarduerak Adinberri zentro berrirako AASen aldaketa puntualaren prozedurara egokitzen dira.

Fase bakoitzean aurreikusitako eduki eta ekintzen denbora-planifikazioa hau da:

ALDAKETAREN PROZEDURA	AURREIKUSITAKO PARTE HARTZEKO EKINTZAK
1. Herritarrek Parte hartzeko Programa. 1.1. Talde tekniko kontratazioa. 1.2. HPP elaborazioa.	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrek Parte hartzeko Programa elaborazioa. HPP Arau Subsidiarioak aldatzeko prozesuan zehar paraleloan joango da, Udal Plangintzako Aholku Batzordea barne.
2. Hasierako Udal Akordioa. 2.1. AASS aldatzeko akordioa. 2.2. Herritarrek Parte hartzeko Programa onartzeko akordioa.	
3. Ingurumen-izapidea Eusko Jaurlaritzan. →Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua. 3.1. Ingurumen Dokumentu Estrategikoa (HJD) Ingurumen Organoari igortzea. →4. puntua martxan jarriko da. 3.2. Ingurumen-organoaren aurretiazko kontsultak. 3.3. Ingurumen Organoak Ingurumen Txosten Estrategikoa (EJZ) egitea. (6. puntuaren aurretik. Jendaurrean jartzea). → Aukerak: 3.3.1. Aldeko txostena, neurri zuzentzaileak ezarrita. →Izapideak aurrera jarraituko luke. 3.3.2. Ingurumen-ebaluazioa egiteko beharra ezartzen duen txostena Estrategia arrunta; beraz, hasieratik hasi beharko litzateke ingurumen-izapidea, dagokion prozedurarekin.	<ul style="list-style-type: none"> • Prestaketa: dokumentazio tekniko aztertea. • Prestaketa: eragileak zehaztea, kanalak, epeak eta datak, jarraipena, etab. Parte hartzeko eta komunikatzeko edukiak • Dibulgazio- eta partaidetza-materiala prestaketa • Informazio eta parte hartzeko saio tekniko • Informazio- saio publiko • Parte hartzeko saio publiko • Parte hartzeko eta komunikatzeko dibulgaziozko edukiak eta materiala prestatzea, Arau Subsidiarioen Aldaketarako Dokumentua, HJD eta EJZ.
4. Hasierako Onespenaren aurreko txostenak (udalekoak eta/edo sektorekoak).	
5. Hasierako Onespenaren Udal Akordioa.	

<p>6. Erakusketa publikoa (Arau Subsidiarioen Aldaketarako Dokumentua, HJD eta EJZ). 6.1. Alegaziorik balego, proiektua idatzi duen taldearen txostena. 6.2. Alegazioei buruzko udal-txostenak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Dokumentuak eta materialak udalaren webgunera igotzea eta prentsa-oharra. • Erakusketa. • Galdetegia (digitala zein paperezkoa). • Fase honetako parte-hartzearen eta ekarpenen laburpen-txostena. • Zabalkundea: prentsa-oharra.
<p>7. Behin-behineko Onespenaren aurreko txostenak (udalekoak eta/edo sektorialak).</p>	
<p>8. Arau Subsidiarioak Aldatzeko Dokumentuaren Testu Bategina, HJD eta EJZ barne.</p>	
<p>9. Behin-behineko Onespenaren Udal Akordioa.</p>	
<p>10. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena.</p>	
<p>11. Behin-betiko Onespenaren Udal Akordioa.</p>	
<p>12. Interesdunei jakinaraztea eta argitaraztea.</p>	

3.2 PARTE HARTZEKO EKINTZEN DESKRIBAPENA

3.2.1 Informazio eta parte hartzeko saioak (publikoak eta teknikoak)

Saio publikoak, AASSen “Adinberri” aldaketa eta bere edukiak azaltzeko.

Bi saio egingo dira eragile anitzeko xede-publikoarekin: bizilagunak, adinekoak, zaintzaileak, emakumeak, tokiko sare sozioekonomikoa, etab. Lehenengoa informatiboagoa da, eta bigarrena, parte-hartzaileagoa.

Eta beste saio bat, nagusiki osasun-laguntzaren sektoreko teknikariek: Pasaiako Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak, osasun-laguntzaren sektorearekin lotuta (kudeaketan, laguntzan eta abarretan lan egiten duten pertsonak). Bestela, ezin bada saio hori egin, elkarrizketak egingo dira horrelako teknikariek.

Saioak presentzialak izango dira, ahal dela. Hala ere, halakorik ezean, telematikoak edo hibridoak izan daitezke (presentzialak eta telematikoak), bertaraterik ez dutenei edo bertaratu nahi ez dutenei laguntza eta zabalkundea emateko.

Saioak Trintxerpeko alkateordetzan egingo dira. Hala ere, aipatu behar da, nahiz eta saioak eta proiektua bera Trintxerpen kokatu, aldaketak eta parte-hartzeak udalerrri osoari eta bere barrutiei eragiten diela.

Hona hemen gutxi gorabeherako edukiak:

- Sarrera eta hasierako galderak (Zer dira Arau Subsidiarioak (AASS)? Zertan datza aldaketa? Nork sustatzen du? Zergatik? Zertarako? Etab.
- Parte hartzeko prozesua: noiz eta nola parte hartu
- Pasaiako AASSen “Adinberri” aldaketaren edukiak: funtsezko gai eta gakoetan oinarritutako azalpena, baita bakoitzari buruzko informazio garrantzitsua ere eta dokumentazio grafiko/kartografikoan adierazita. AASSen “Adinberri” aldaketa Gipuzkoako Aldundiak sustatu eta egiten duenez, bera arduratu beharko litzateke.
- Parte hartzeko dinamika

3.2.2 Erakusketa

Jendaurrean jartzeko fasean, AASSen “Adinberri” aldaketaren edukiei buruzko erakusketa bat egingo da.

Ahal dela, erakusketa erraz muntatu eta desmuntatzeko moduko panelen bidez egingo da, *roll-up* motakoak. Horrek lekuz aldatu ahal izateko aukera ematen du, beharrezkoa izanez gero; erakusketa toki berean egon edo lekuz aldatu daiteke (muntatze eta desmuntatze erraza dela eta). Saioetan bezala, erakusketa ere udal-ekipamenduetan egingo da, ahal dela Trintxerpe barrutian.

3.2.3 Galdetegia, digitala zein paperezkoa

Parte hartzeko prozesuaren dimentsio nagusia presentziala bada ere, komunikazio- eta partaidetza-osagarri gisa galdetegi bat proposatzen da, digitala, paperezkoa edo digitala zein paperezkoa.

Parte-hartzea anonimoa izango da, eta parte-hartzailearen profilari buruzko datu anonimoak baino ez dira jasoko. Datu horiek partaidetzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren partaidetzaren adierazleetan sartuko dira.

3.3 KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIO-MATERIALA

3.3.1 Komunikazio eta dibulgazio-materialaren helburuak

Komunikazioa funtsezkoa da parte-hartze prozesua aurrera eramaterako eta parte-hartze informatu bat izateko. Horregatik, komunikazioaren helburuak honakoak dira:

1. AASen “Adinberri” aldaketari buruzko **informazioa ematea**.
2. Ahalik eta jende-kopuru handien eta anitzena **parte hartzera gonbidatzea**; arreta berezia jarriko zaie Trintxerpeko adineko pertsoneri eta zaintzaileei.
3. Parte-hartzearen emaitzak **ezagutaraztea eta zabaltzea**.

3.3.2 AASen “Adinberri” aldaketaren komunikazioaren ikuspegi orokorra

Fase desberdinetan erabiliko diren komunikazio-kanalak digitalak eta analogikoak, gertukoak, erabilgarriak, sormena bultzatzeko modukoak, askotarikoak eta elkarren artean osagarriak izango dira. Horretaz gain, elkarlanean eta ikuspegi berarekin landuko dira.

Gainera, edonork ulertzeko moduko hizkuntza erabiliko da, betiere ikono eta piktogramak erabiliz edukia ulertzea, identifikatzea eta ulergarritasun kognitiboa errazteko.

3.3.3 Hizkuntzaren erabilera

Komunikaziorako eta parte hartzeko material guztia eta dinamizazioa egoki landuko da, eta **hizkuntza ez sexista erabiliko da**, indarrean dagoen araudiaren arabera. Gainera, **elebitzan** egingo da, euskaraz eta gaztelaniaz, EAEko bi hizkuntzen ofizialtasuna aintzat hartuta.

Herritarrei zuzendutako argitalpen, ohar, jakinarazpen edo bestelako idazki guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, eta euskarari lehentasuna emango zaio. Horretarako, letraren tamaina eta testuaren kokapena zainduko dira. Gainera, parte-hartzea dinamizatuko duten taldekideek esperientzia dute euskaraz eta gaztelaniaz dinamizatzen.

3.3.4 Dibulgazio- materialak, tresnak eta kanalak

Dibulgazio-materialak, tresnak eta kanalak ondokoak dira:

1. **Ikonoak eta material bisualak**, guztien ulermena errazteko.
2. **Prentsa-oharrak**, 2 planteatzen dira: prozesuaren hasieran eta emaitzak itzultzeko.
3. **Erakusketa**
4. **Informazio-kartelak**, parte hartzeko datak eta bideak adierazita. Udalerrian banatzeko (bereziki osasun- eta laguntza-ekipamenduetan).
5. **Gonbidapenerako mailing-a**, eragile espezifikoekin taldeekin harremanetan jartzeko.
6. **Gonbidapen publikoa (Whatsapp motakoa)**, modu publikoan banatzeko.
7. **Saio tekniko eta publikoetarako aurkezpenak**. AASS "Adinberri" aldaketa Gipuzkoako Aldundiak sustatu eta egiten duenez, bera arduratu beharko litzateke.

3.4 PARTAIDETZAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

JARRAIPEN-ADIERAZLEAK ETA PARTAIDETZAREN EBALUAZIO		
I01	Parte-hartzaileen kopurua (mobilizatu diren lagunak)	
I0	Parte-hartzaileak kanalaren arabera <ul style="list-style-type: none"> Saio publikoak Galdetegia, digitala zein paperezkoa 	
I03	Parte-hartzaileak generoaren arabera Emakumezkoak, gizonezkoak eta beste identitate batzuk	
I04	Parte-hartzaileak adinaren arabera < 18, 18-30, 31-45, 46-65, > 65	
I05	Parte-hartzaileak eragile-motaren arabera: (eragile bakoitza talde bat baino gehiagoren parte izan daiteke) 2.2.3. puntuan aipatzen diren eragile-motak: <ul style="list-style-type: none"> Adinekoak Adinekoak zaintzen dituztenak Pasaia herritarrak oro har Osasun eta asistentzia kudeaketako teknikariak 	
I06	Parte-hartzaileak barrutika: <ul style="list-style-type: none"> Antxo Donibane San Pedro Trintxerpe Beste udalerrri bat 	

4. GENERO-IKUSPEGIA PARTE-HARTZEAN

Pasaiako AASSen “Adinberri” aldaketaren partaidetzak hainbat neurri ezartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko honako arlo hauetan: enplegua lortzea, sailkapen pertsonala, sustapena, iraupena, prestakuntza, ordainsariak, lan-kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolamendua eta kontratua gauzateari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako, ezarritakoaren arabera.

Hori, batetik, AASSen “Adinberri” aldaketan genero-ikuspegia txertatzeko edukietan gauzatzen da, eta, bestetik, lan-bizitza, bizitza pertsonala eta familiakoa bateratzeko neurrietan, bai parte-hartzaileei bai kontratua gauzatzen dutenei dagokienez.

4.1 GENERO-IKUSPEGIA BARNERATZEKO EDUKIAK

AASSen “Adinberri” aldaketan parte-hartzean landu beharreko edukiek, zuzenean edo zeharka/zeharka, genero-ikuspegia barneratzen dela bermatzeko garrantzitsuak diren alderdiak eta gaiak jasoko dituzte.

Honako hauek dira, adibidez, garrantzitsuak izan daitezkeen gai batzuk:

Zerbitzuetarako eta ekipamenduetarako irisgarritasuna

- Bateratzea eta denboraren kudeaketa
- Mugikortasun iraunkorra eta jasangarritasuna
- Segurtasuna (hirigintzatik)
- Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea
- Berdintasuneko onarpen soziala
- Gobernantza

4.2 LAN-BIZITZA, PERTSONALA ETA FAMILIAKOA BATERATZEKO NEURRIAK

4.2.1 Parte hartzeko ekintzekin zerikusia duten neurriak

Honako ekintza hauek aurreikusten dira norbait (haurrak, adinekoak, etab.) zaintzen dutenek parte hartzea errazteko:

1. **Kontziliazioa errazteko informazio-hitzaldien eta parte hartzeko saioen ordutegia:** Sarritan, parte hartzeko saio publikoak, lan-ordutegitik kanpo, 19: 00etatik 21: 00etara egiten dira, eta horrek familia bateragarri egitea zailtzen du. Kontziliazio-neurri posible bat saioak 18: 00etatik 19: 30era edo 20: 00etara egitea da, eta, gainera, haurrak edo adinekoak beren ardurapean dituzten pertsonak bertaratzea.
2. **Haurrak eta adinekoak informazio-hitzaldietara eta parte hartzeko saioetara joateko aukera:** horiek beren kargura dituztenak haiekin joan ahal izango dira, partaidetza-taldeko langileren batek zainduko baititu. Lan-taldearen ohitura da partaidetza prozesuetan.
3. **Aukera hori dagoela jakinaraztea** (karteletan, webgunean eta gainerako komunikazio-materialean), parte hartu nahi eta beraien ardurapean beste norbait dutenak etortzera anima daitezten.
4. Bere ardurapean (normalean, emakumeak) norbait dutenen partaidetza **ebaluatzea eta jarraitzea**, hala badagokio, partaidetza inklusiboa eta berdinzalea errazteko neurriak indartzeko.

4.2.2 Kontratupeko langileekin zerikusia duten neurriak

Lan-taldeak honako ekintza hauek egingo ditu lana, bizitza pertsonala eta familiakoa hobeki uztartzeko:

1. **Ordutegi-malgutasuna**, batez ere eskolako oporraldietan eta, nolana ere, familia dela eta edota arrazoi pertsonalengatik.
2. **Telelana egiteko aukera** denboraren % 20an (lanegun baten baliokidea).
3. **Seme-alabak zaindu ahal izateko lanaldi jarraitua**, egunero edo asteko egun batzuetan, 8:00etatik 15:00etara edo 9:00etatik 16:00etara.
4. **Lanaldi trinkoa ostiraletan eta jai bezperetan**, 9:00etatik 15:00etara.
5. **Jateko eta janaria berotzeko tokia izatea** bulegoan, eta bazkaltzeko denbora 30 edo gehienez 60 minutura murriztea.